

RESOLUCIÓN 844/2015, de 18 de mayo, de la Directora Gerente de la Organización Sanitaria Integrada OSI BILBAO-BASURTO, por la que se convoca la provisión, mediante libre designación, de un puesto de Jefe de Sección de Administración y Gestión (Servicios Generales – Seguridad y Vigilancia) en la OSI BILBAO-BASURTO de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Encontrándose vacante el puesto de Jefe de Sección de Administración y Gestión (Servicios Generales – Seguridad y Vigilancia) en la OSI BILBAO-BASURTO, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección Gerencia acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes:

#### BASES:

##### 1.- Requisitos de participación.

Podrán participar en esta convocatoria quienes acrediten el cumplimiento de los siguientes requisitos:

a).- Ser estatutario, funcionario o laboral fijo en cualquier organización de servicios de Osakidetza, y tener plaza en propiedad en el grupo profesional A1/A2.

b).- Hallarse en posesión de la titulación perteneciente al grupo profesional A2 (Ingeniero superior).

c).- Experiencia profesional mínima de 3 años en el grupo profesional A2.

##### 2.- Méritos a considerar: conocimientos y experiencia en

- Instalaciones hospitalarias.
- Liderazgo y Dirección de Personas - implantación de sistemas de gestión de calidad según norma ISO 9001.
- Medidas e instalaciones de Seguridad en Hospitales.
- Implantación de sistemas de gestión ambiental y su normativa.
- Sistemas de mejora de eficiencia y ahorro energético (iluminación, energía solar y fotovoltaica....).
- Prevención de Riesgos Laborales en las especialidades de Seguridad en el trabajo, Higiene Industrial y Ergonomía y Psicología Aplicada
- Ofimática, conocimientos avanzados.
- SAP (aplicación del módulo de Mantenimiento).
- Nivel de conocimiento de euskera en conformidad con los criterios establecidos en el Decreto 67/2003.

Se podrán aportar cuantos méritos se consideren de interés y añadan valor al desempeño de este puesto de trabajo.

### 3.- Plazo y presentación de solicitudes.

Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Personal de la OSI BILBAO-BASURTO en la Avda. Montevideo, 18 de Bilbao 48013 de Osakidetza-Servicio vasco de salud, dentro del plazo de **15 días hábiles** contados a partir del siguiente al de la publicación del Anuncio de la presente Resolución en el BOPV. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los/as interesados/as deberán dirigir la solicitud con todos sus datos personales, acompañada de "Curriculum Vitae" documentado a la Dirección de Personal de la OSI BILBAO-BASURTO en la Avda. Montevideo, 18 de Bilbao, código postal 48013.

La documentación relativa al Curriculum Vitae deberá tener la siguiente forma:

- a) Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o permiso de conducir.
- b) Fotocopia compulsada del nombramiento de personal funcionario o estatutario o, en su caso, del documento que acredite la condición de laboral fijo.
- c) Fotocopia compulsada de la documentación que acredite el cumplimiento de requisitos.
- d) Fotocopia compulsada de todos los méritos a considerar.

No será preciso acreditar en la forma indicada en el párrafo anterior aquéllos extremos que consten debidamente validados en la aplicación informática corporativa de CV, si bien esta circunstancia deberá hacerse constar en la solicitud que realice el aspirante.

### 4.- Comisión de Valoración.

Se constituirá una Comisión de valoración presidida por la Directora Gerente o persona en quien delegue, e integrada por el Director Económico Financiero, la Directora de Personal (que actuará como Secretaria con voz y voto) y dos vocales que deberán ostentar la titulación y, preferentemente, la especialidad exigida a los candidatos.

Efectuada la valoración de los aspirantes y a la vista de la misma, se elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. La Comisión podrá, previo informe motivado, declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

Se levantará acta de cada sesión de la Comisión. En la misma constarán los aspirantes presentados así como los motivos tenidos en cuenta para la asignación del puesto a uno de ellos o, en su caso, para declarar desierta la convocatoria.

### 5.- Procedimiento de selección.

En ningún caso podrán considerarse méritos que no se ostenten a la fecha de publicación del Anuncio de la convocatoria en el BOPV, ni tampoco los que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados antes de finalizar el plazo de

presentación de solicitudes.

6.- Resolución que pone fin al procedimiento.

La finalización del procedimiento que aquí se inicia (asignación del puesto o declaración de desierto) se llevará a cabo mediante Resolución de la Directora Gerente de la OSI BILBAO-BASURTO de Osakidetza-Servicio vasco de salud, que se publicará en la intranet y la página web corporativa de Osakidetza. Asimismo se publicará un Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dicha resolución surtirá efectos desde la fecha de publicación del Anuncio en el BOPV, salvo que en ella se disponga otra cosa.

7.- Recursos contra la presente resolución.

Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Bilbao, a 18 de mayo de 2015

**BILBO-BASURTU ESIKO ZUZENDARI GERENTEA /  
LA DIRECTORA GERENTE DE LA OSI BILBAO-BASURT**

Iz./Fdo.: **MICHOL GONZALEZ TORRES**



**Osakidetza**  
**GERENTZIA**  
**GERENCIA**

**BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO**

844/2015 EBAZPENA, maiatzaren 18ekoa, BILBO-BASURTU Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez, deialdia egiten da Osakidetzako BILBO-BASURTU Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) Administrazio eta Kudeaketako (Zerbitzu Orokorrak – Segurtasuna eta Zaintza) atalburu lanpostu bat izendapen askez betetzeko.

BILBO-BASURTU ESiko Administrazio eta Kudeaketako (Zerbitzu Orokorrak – Segurtasuna eta Zaintza) atalburu lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Zuzendaritza Gerentzia honek lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du, honako oinarrien arabera:

#### OINARRIAK:

##### 1.- Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a).- Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea eta plaza jabetzan edukitzea A1/A2 lanbide-taldean.

b).- A2 lanbide-taldeko titulua izatea (goi mailako ingeniaria).

c).- Hiru urteko lan-esperientzia izatea, gutxienez, A2 lanbide-taldean.

2.- Aintzat hartuko diren meritua: Arlo hauetako ezagutzak eta lan-eskarmentua baloratuko dira:

- Ospitale-instalazioak.
- Lidergoa eta Pertsonen Zuzendaritza – kalitatea ISO 9001 arauaren arabera kudeatzeko sistemak ezartzea.
- Segurtasun-neurriak eta –instalazioak ospitaleetan,
- Ingurumena kudeatzeko sistemak eta horren gaineko araudia ezartzea.
- Eraginkortasun eta aurrezte energetikoa hobetzeko sistemak (argiak, eguzki-energia, fotovoltaikoa...).
- Lan Arriskuaren Prebentzioa espezialitate hauetan: Laneko Segurtasuna, Higiene industrial eta Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatua.
- Ofimatika, ezagutza aurreratuak.
- SAP (Mantentze-moduluaren aplikazioa).
- 67/2003 Dekretuan ezarritako irizpideekin bat datorren araberako euskara maila izan beharko dute.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen edo balioa erants dezakeen edozein meritua aurkeztu ahal da.

### 3.- Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua:

Interesatuak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko BILBO-BASURTU ESIko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali behar dituzte eskabideak (Montevideo etorbidea 18, 48013 Bilbo), **15 egun** balioduneko epean, ebazpen honen iragarkia EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera. Horrez gain, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkeztu daitezke.

Interesdunek beren datu pertsonal guztiak bete eta helbide honetara bidali behar dute eskabidea, curriculum vitae dokumentatuarekin batera: BILBO-BASURTU ESIko Pertsonaleko Zuzendaritza (Montevideo etorbidea 18, 48013 Bilbo).

Curriculum Vitaeko dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Kontuan hartzeko merituen guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

### 4.- Balorazio Batzordea.

Balorazio batzorde bat osatuko da, batzordeburu zuzendari gerentea edo hark eskuordetzen duena izanik, eta hauexek izango dira bertako partaideak: Ekonomia eta Finantza zuzendaria, Pertsonaleko zuzendaria (idazkari izango dena, ahots eta botoarekin) eta kide bi, titulazioa izan beharko dutenak eta, lehentasunez, izangaiei eskatutako espezialitatea ere bai.

Izangaiei balorazioa egindakoa, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Batzordeak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiak eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, eta lanpostua beraietako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

### 5.- Hautatzeko prozedura.

Ezingo dira baloratu, inolaz ere, deialdiaren iragarkia EHAAn iragartzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta ziurtatu ez direnak ere.

## 6.- Prozedura amaitzeko Ebazpena.

Hemen abiatzen den prozedura amaitzeko (lanposturako pertsona esleitzea edo lanpostua hutsik uztea), ebazpena eman behar du Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko BILBO-BASURTU ESIko zuzendari gerenteak. Intranetean eta Osakidetza webgune korporatiboan argitaratuko da. Era berean, Iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu Iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

## 7.- Ebazpen honen aurkako errekursoak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekursoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Bilbo, 2015eko maiatzaren 18a

**BILBO-BASURTU ESIKO ZUZENDARI GERENTEA /  
LA DIRECTORA GERENTE DE LA OSI BILBAO-BASURT**

Iz./Fdo.: **MICHOL GONZALEZ TORRES**

 **Osakidetza**  
**GERENTZIA  
GERENCIA**

BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO